



iturri 
ondoan



2024

Uztailean, Plaza Zaharrear



“Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten,
beti berri den ura,
betiko iturri zaharretik”

(Joxean Artze)



Iturri ondora gatoz beste urte batez ere. Uda betean gauden seinale, zalantzarik gabe. Gure herriko txoko berezi eta kuttun honetan garatzen den egitasmoa hamaikagarrenez burutuko dugu aurten, eta hamaika edizio hauetan, hamaika ikuskizun ikusi ditugu, denetarikoak, dantza, antzerkia, musika emanaldiak, herritarrak gogoratuz hainbat ikuskizun, herritarrek burutzen duten Begirada berezia...

Aurten ere izango dugu gozatu ederra hartzeko aukera. Aurten ere molde desberdinetan emaniko ikuskizunak izango ditugu, guztiak Plaza Zaharren, guztiak Plaza Zaharreko iturriaren ondoan.

Uztailako ostiraletako arratsalde gauak markatuta ditugu gure egutegietan, eta ez dago plan hobirik Iturri ondora etortzea baino. Non izango du zapore hobea ordu horretan jaten dugun helatuak Plaza Zaharrean baino? Non irrifarreak goxotasun handiagoa iturriaren inguruan egindakoak baino? Non harridura eta zirrara hunkigarriagoa izarren azpiko karpa honetan baino?

Badakizu, beraz, horiek guztiak sentitzeko eta bizitzeko prest bazaude, hemen duzu gure eskaintza. Ez ezazu aukera galdu!!!

Alazne Txurruka Allika

Debako alkatea

Ali baba eta **40** lapurrak

Markel Sainz

Asier Sota

Anartz Zuazua



ZUZENDARIA:
Anartz Zuazua

“Ireki zaitez Sesamo” esatearekin bat, kobazuloa ireki egingo da”



Hiru aktore eta 3 x 3 metroko alfonbra bat nahikoa dira Persiako hiri bateko bazarra, basoa, lapurren kobazuloa, Ali Babaren etxea eta istorio ezagun honek dituen hamaika kokapen irudikatzeko: baita 20 pertsonaia baino gehiago antzezteko ere. Borobil antzerki taldeak ondutako antzezlaren bitartez, umorez gozatzeko aukera izango dugu guztiok. GOazen teleaileko aktoreek (Dánae eta Iñaki) zuzeneko musikarekin osatuko dute antzezlana.

Iraupena: 55 minutu · **Ikusleak:** Familiarra, 5 urtetik aurrera.

Aktoreak: Anartz Zuazua, Asier Sota, Markel Sainz.

Musikariak: Dánae Riaño, Iñaki Mujika.

Zuzendaritza: Anartz Zuazua.

Uztailak 5, ostirala · 22:00



literatura, irudiak eta musika

Begiradak

"Irudiak eta hitzak
dantzak eta musikak
antzerkitxoak eta halakoak
denak txirikordatuz,
denak denarekin lotuz,
hemen gatoz,
biraka,
trumilka....
aurtegoan hamaika!"

BEGI 				
RADAK				
2024	Uztailak 12	Ostirala	22:00	Plaza Zaharrean
				
Deba				
<small>Testuagileak: Iraia Agirrezabala, Antton Alzpurua, Gatzane Alzpurua, Eider Aldalur, Rexu Arakistain, Ane Bastida, Nekane Galkoetxea, Itxaso Iciar, Arantza Iriondo, Itzale Laka, Mari Seara, Ainara Sedano, Martin Uribea eta Amaia Zinkunegi</small>				
<small>Irudiagileak: Inma Alberdi, Esti Beristain, Itziaki Elosua, Aitor Oñederra, Nere Oria, Jhoselin Quispe</small>				
<small>Dantza: Kulelka dantza taldea</small>				
<small>Korrala: Irati Albitza</small>				
				
				
2024	Uztailak 12	Ostirala	22:00	Plaza Zaharrean

Uztailak 12, ostirala · 22:00



musika

Olaia Inziarte



“Sonoritate tradizionalena
abangoardistarenarekin
harilkatuz”



Olaia Inziarteren lehen diskoak harrera ezin hobea izan du euskal musikaren plazan. Durangoko Azokan diskoak amaitu ostean, artista nafarrak abestiak egiten badakiela erakutsi digu, sonoritate tradizionalena abangoardistarenarekin harilkatu eta pop ilun estiloko konposizioak kaleratuz "Lehengo Lepotikan Burua" lanean.

Gaztezulo bezalako prentsa espezializatu batek urteko disko onenen artean sartu zuen eta lau asteetan, bere lehen singleak, "Behe klasekoa"-k, TOP GAZTEA zerrendako LEHEN POSTUA eskuratu zuen.

Uztailak 19, ostirala · 22:00

TABUEN KUTXATIK OHOLTZARA

BERTSO SAIO MUSIKATU SOLIDARIOAK



bertsoak

Iñurri

“Bularreko minbiziari lotutako estereotipoak gainditzeko ekarpena”



Gaur egun gizartearen ahotan eta mediatikoki hain ezaguna den gaixotasun honen atzean, orokorrean uste dena baino mundu zabalagoa dagoela ikusarazi nahi dugu, gaixotasunak inposatzen duen isillasuna hautsiz, mamuak zokoratuz eta tabu diren gaiak azaleratuz.

Bularreko minbiziari lotutako estereotipoak gainditzeko **ekarpen xume bat** egin nahi genuke, gure esperientzia, ahotsa eta gorputza plazaratuz: bide batez esanda, urteetan ukatu zaion presentzia eta espazioa eskainiz.

Bertsolariak: Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Ane Labaka eta Mainer Arregi.

Gai-jartzailea: Amaia Agirre. **Musikariak:** Ixak Arruti eta Gari Otamendi.

Uztailak 26, ostirala · 22:00



DEBAKO UDALA



Uztailean, Plaza Zaharrean